

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

koherente	«Horrelakoetan, sinesgarriena edo koherenteena iruditzen zitzaidana jarri dut.»
kronika	«Hurrengo orriotan kontatuko ditudanek gure herriko kronika moduko bat izan nahi dute, garai zehatz bateko nire kronika subjektiboa.»
subjektibo	«Hurrengo orriotan kontatuko ditudanek gure herriko kronika moduko bat izan nahi dute, garai zehatz bateko nire kronika subjektiboa.»
itogarri	«Gero eta itogarriagoa egiten zitzaidan, nahiz eta gurasoek...»
jaioterri	«...institutuko erlijio irakasleak bere jaioterrian etxebizitza merke zegoela alokairuan...»
muino	«...itsasotik bost bat kilometrora zegoen, muino baten, goian zegoen elizaren inguruan...»
porlan	«Hondartza ez zen urruti eta etxearen atzealdean porlanezko zorua zuen...»
konbentzitu	«Kala-txikiraino autoan buelta bat emateko konbentzitu zuen Tomas...»
lainotu	«Arratsaldeko laurak eta hogeian heldu zen etxera Aroa udazkeneko egun lainotu hartan.»
leherturik egon	« Leherturik zegoela esan zion senarrari bekokian musu bat eman ostean.»
arrasto	«...baina bertan ez zegoen neskatoaren arrastorik ...»
estrata	«Bertara joateko errepidea utzi eta lurrezko estrata bat hartu beharra zegoen.»
aholku	«...talde desberdinei agindu eta aholkuak ematen...»
astegun	«Eguna argitu zuenean boluntario kopurua igo egin zen, nahiz eta asteguna izan.»
itsasertz	«... itsasertzeko baso eta hondartzak miazteko.»
miatu	«...itsasertzeko baso eta hondartzak miazteko .»
ahapeka	«Herrian inor gutxi zebilen kalean eta etxe atarietan taldetxoak ikusten ziren, ahapeka hizketan eta itxura serioarekin.»
irribarretsu	« Irribarretsu seinalatzen nion taldetxoari begiratu zion...»
marmarka	«...emakume bi marmarka harrapatu nituen niri begira.»
atxiki bat eman	«...begietara begira gelditu zitzaidan, atxiki bat eman zion zigarroari.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

burumakur	«Egun haietan ez zen tabernetan sartzen beharrezkoa ez bazen, eta autotik jaistean azkar eta burumakur ibiltzen zen; serio.»
zimeldu	«Udako soineko arin batekin jantzita ikusi zuen eta lore-sorta zimeldua zuen eskuan»
erdipurdiko	«Martinek izena gogoratzen ez zuen arren, bazekien non bizi zen eta baita erdipurdiko ikaslea zela.»
haxix	«Baaaiiii. Haxixa erretzen dugu, eta zer?»
txirri	«Eta txirriak erretzen.»
estimu	« Estimu handia omen zion bere bizitza pribatuari.»
haitz	«...hondartza eta itsasertzeko haitzak erabiltzen zituzten larrutan egiteko.»
larrutan egin	«...hondartza eta itsasertzeko haitzak erabiltzen zituzten larrutan egiteko .»
intzirika	«Zakur koitadua intzirika urrutiratu zen...»
kirten	«...eta bere lagun kirtenek ez zuten sekula elkarrizketa luzerik izaten neskekin.»
koitadu	«Zakur koitadua intzirika urrutiratu zen...»
xehetasun	«...bazekien Izarok xehetasunak ere ematen zizkiela bere lagun minei...»
bolada	«...bazekien nor zen eta azken boladan istorio arraroak kontatzen ziren hari buruz.»
erne	«Eskuak patriketatik atera eta erne gelditu zen.»
patrika	«Eskuak patriketatik atera eta erne gelditu zen.»
apal	«... apalago hitz egiten zuen, eta begirada saihesten zidanez...»
bahitu	« Bahitu , bortxatu eta hil dutela deskubritzen badute...»
bortxatu	«Bahitu, bortxatu eta hil dutela deskubritzen badute...»
gerontokratiko	«»
misogino	«»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

belar-pattarra	«Mahaian eserita geunden, belar-pattarra edaten ari ginela uste dut.»
listu	«Zakurra berehala joan eta listuz bete zizkion eskuak eta nikia.»
besagain	«... besagaini eragin nien eta berak barre egin zuen...»
trakets	«Ez zara batere ona, traketsa zara eta ez duzu inolako pazientziarik...»
zinegotzi	«...normalean aginduak Arieta zinegotziak ematen zizkien.»
zurrungaka	«...ez duzu ezer agoantatzen, hamar minutu eta lo zaude, zurrungaka , tripaz gora.»
jipoitu	«— Tuerkas. Nork jipoitu du?»
kala	«— Aroa bostak baino lehen atera zen etxetik kalara bidean.»
bezpera	«Goizeko hamaikak pasatxo ziren eta bezperan euria etenik gabe egin bazuen ere...»
umiliazio	«Eta eguneroko umiliazioak agoantatzen jarraitu zuen, etxean ezer kontatu gabe.»
ikara	« Ikara zegoen mutikoaren begietan, eta emazteak, aurpegiko zauriari begira...»
orroka	«Gizonak zerbeza botila zuen eskuetan eta orroka hurbildu zitzaion.»
zalaparta	«Bederatziak pasata zeuden atean zalaparta sentitu zuenenean.»
bihurritu	«— Aurrez aurre banu, neronek bihurrituko nitek putakume horren lepoa.»
neronek	«— Aurrez aurre banu, neronek bihurrituko nitek putakume horren lepoa.»
harrituta	«Martin harrituta zegoen: azkeneko urte bietan ez zuen alabaren desagertzea...»
ergel	«Errua nirea duk ergelkin tratatzeagatik.»
ebanjelioa	« Ebanjelioa erakusten omen zuen, edo haiek azaldu eta beraietaz hitz egin.»
erakutsi	«Ebanjelioa erakusten omen zuen, edo haiek azaldu eta beraietaz hitz egin.»
maindire	«...batzuetan maindirea hanken gainean jarri eta...»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

omen	«Ebanjelioa erakusten omen zuen, edo haiek azaldu eta beraietaz hitz egin.»
musker	«Halako batean, Aneren koinatuak, musker itxurako gizon lasaiak...»
topiko	«Hiruzpalau galdera topiko eta horrenbeste erantzun topikoren ostean ailegatu ginen harira.»
barruntatu	«Bederatziak eta hogeitaziren kanpoko atearen sarrailan giltzaren zarata barruntatu zuenean...»
sarrail	«Bederatziak eta hogeitaziren kanpoko atearen sarrailan giltzaren zarata barruntatu zuenean...»
negar zotin	«...negar zotin bat egin zuen Aurorak, eta Tuercasek muturra okertu zuen.»
ubeldua	«Tuercasek aurpegiko ubeldua ukitu zuen atzamarrarekin.»
zurbildu	«Tuercas zurbildu egin zen, txorabio antzekoa sentitu zuen...»
aldarte	«Oro har, horretarako inolako arrazoirik ez zegoela, goibeldu egin zitzaion aldarte ...»
katatoniko	«Izaro egoera katatoniko batean zegoen...»
erregu	«Ez da aukera bat, eta ez da erregua ere.»
bedeinkatu	«Nik uste nuen erlijio zalea izango zela, mahaia bedeinkatu ...»
zoli	«... zoliagoak zuraren gainetik, motelagoak azulejoen gainetik.»
artega	« Artega egoten zen, burua nekatuz, gertatutakoak berrituz»
aseptiko	«Gela aseptiko batean sartu, eta makinako kafea aurrean jarri zioten arte.»
lekukotza	«Ez zuen ezer esan eta galderen bitartez egin zuen bere lekukotza Tuercasek.»
mairu	«...bazen taberna ingurutik ibiltzen zen mairu bat...»
nasai	«...hori eta patrika askoko praka nasaiak ...»
ateri egon	«Baina ateri zegoenean ere bertan egiten ziren trapitxeoak.»
langar	«Euri langarra ari zuen eta aspaldi tailer bat izandakoan sartu ziren babesteko.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

igarri	«...eta begiradan igarri nion nik baieztatzea nahi zuela.»
otzara	«Hutsik zegoela pentsatu eta bertan gordetzen zuen otzara baten bila sartu zen logelan.»
laxatu	«Gorbataren korapiloa laxatu , zapatak lokarria ukitu gabe erantzi...»
borondate	«Aste batzuk emango zituen bertan, “ borondatea indartu arte”, horrela esan zioten Tuercasen amari behintzat.»
ofizial	«Azkenean, Martinekin hitz egitea erabaki zen, baina ez modu ofizialean .»
deigarri	«...atzamar birekin zuzen kokatu zuen bere gorbata deigarria Martini begietara begiratu gabe.»
apologia	«Bai, bai... ulertzen diat hori, ni ere ez nauk heroinaren apologia egiten hasiko.»
heuk	«Dena dela, heuk aipatutakoa aukera bat duk, ez Arizak egitea, noski, norbaitek mutila hil nahi izatea baino.»
haugu	«Legez kontrako zerbait berriro egiten baduk, beste edozein gaizkile bezala tratatuko haugu .»
ateraldi	«Zergatik ekarri duzu lana etxera? Ez al duzu nahiko lan egiten eskolan?-azkeneko egunetan ez zuen barrerik egiten nire ateraldien aurrean.»
erreguka	«... erreguka ari zela pentsatu nuen eta ez nintzen gai izan begiradari eusteko.»
ezohiko	«Jasonek gustoko zuen jatetxe exotikoetara joatea, elkarrekin edozer gauza ezohiko egitea gustoko zuen, egia esan.»
txutxu-mutxu	«West-enak herria txutxu-mutxuz eta esamesez bete zuen eta Arizaren andreak bildu egiten zituen gero senarrari kontatzeko.»
estigma	«Musika jartzen zuen autoan eta garai zaharrak oroitzen zituen. Aldizkarien estigma baino lehenagoko garaia.»
adeitsu	«Galdetzen zioten guztia erantzuten eta adeitsua izaten ahalegintzen zen.»
bermatu	«Auto batean bermatu zuen ipurdia, zutik, besoak paparrean gurutzaturik.»
nasai	«Ilea motots batean eramaten zuen eta kolore ilunetako arropak janzen zituen, jertse nasaiak zituen gustuko.»
papar	«Auto batean berrmatu zuen ipurdia, zutik, besoak paparrean gurutzaturik.»
dogmatiko	«Katolikoak, orain pare bat urte arte, emakumeek arima ote zuten eztabai-datzen aritu dira, baina gu ez gara eurak bezalakoak, ez gara dogmatikoak ...»
urruma	« Urruma txikiak egin zizkion Spray-ri aurretik pasatu zitzaionean, baina Spray-k urruma luze, sakon eta mehatxukorrekin erantzun zion...»